



Lehiaren  
Euskal Agintaritza

Autoridad Vasca  
de la Competencia

## PRENTSA-OHARRA

### **Lehiaren Euskal Agintaritzak Bilboko Udala aholkatuko du erabilera turistikoko etxebizitzetako erregulazioan**

**Lehiaren Euskal Agintaritzako Kontseiluak “Bilboko Hiri-Antolamenduko Plan Orokorraren xehatutako aldaketaren gainean, ostatu turistikoko erabileraren erregulazioari dagokionez” txostena onartu du bere abenduaren 18ko bileran. Hara ere, lehiaren sustapen jarduerak garatuko dituela zehaztu du, Bilboko Hiri-Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketari begira. Lehiaren Euskal Agintaritzaren ohiko praktika da indarrean dauden araudien hobekuntzan jardutea eta lehiaren onuren sustapenean beste administrazioekin lan egitea.**

Bilbo, 2017ko abenduaren 22a

LEA/AVC-k onartutako txostenak nabarmentzen du, Bilboko Udala erabilera turistikorako etxebizitzaren erregulazioaren inguruko HAPOaren aldaketa administratiboa izapidetzen ari zela iraillean jakin ostean, eta “merkatuetako lehia mantendu edo berriz ezartzeko proposamenak helaraztea herri-administrazioei,” ahalmena eransten dion eskumena betez, espedientearen kopia osoa eskatu zion Bilboko Udalari eta Hirigintza-Sailarekin hainbat bilera mantendu ditu, bere analisi zehatzari ekiteko. Halaber LEA/AVC-a ASOVITUR-ekin bildu da, Bizkaiko Etxebizitza Turistikoen Elkartearekin, zeinek Bilboko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren erabilera turistikoko etxebizitzaren jarduerari buruzko jokabidea salatu zuen.

Indarrean dauden ostatu turistikoa etxebizitza partikularren marko normatiboaren ikerketa egin ondoren, LEA/AVC-k onartutako txostenak zera dio: etxebizitza partikularren ostatu turistikoa jarduera ekonomikoa duela ere gain, lehiaren ikuspuntutik ikusita, beraz, egokia dela Udalak proposatutako aldaketa jarduera honi egungo HAPOan ageri den beste edozein jarduera ekonomikori ezartzen zaion arautegi bera ezartzea.



Bilboko Udalaren eraikinen erabilerari buruzko arauak 1995. urteko Hiri Antolaketarako Plan Orokorren (HAPO) barruan daude. Plan honek ez ditu era espezifikoan turismoaren erabilerarako etxebizitzak bereizten; beraz, azken urteotan bai hiriak bai bertan zabaltzen diren jarduera ekonomikoak jasaten ari diren eraldaketarekin kontsekuentea izango den HAPO honen aldaketa bideratu beharra ulertzen da. LEA/AVC-k onartutako txostenak Bilboko Udala egiten ari den HAPOren aldaketak egungo egoera gutxi aldatzen duela uste du eta 1995eko HAPO bera dela bizitegi-erabilerarako eraikineko edozein jarduera ekonomiko gauzatzeko ezta beharrezkoak ezta proportzionalak diren sartzeko barrerak ezartzen dituen. Honek bai erabilera turistikoentzako etxebizitzak ustiatzeko baita beste zerbitzu profesional batzuen errendimenduari edota txikizkako merkataritzari etab. ere eragiten diolarik. Hori dela eta, uste du, ostatu turistikoko erabileraren erregulazioari dagokion eta indarrean dagoen HAPOren aldaketa hipotetikoa egitea, diskriminatzailea gerta litekeela gainerako jarduera ekonomikoenganako.

Lehiaren Euskal Agintaritzako Kontseiluak bere abenduaren 18ko bilera onartutako txostena, "Bilboko Hiri-Antolamenduko Plan Orokorren xehatutako aldaketaren ganean, ostatu turistikoko erabileraren erregulazioari dagokionez" erabakitzen du legezkeen barrerak ezabatzeko, Lehiaren Euskal Agintaritzak sustapen-jarduerak zabalduko dituela Bilboko Udalaren aurrean, sektorearen gaurko egoera aztertuko duen ikerketa juridiko-ekonomiko bat landuz, Udalak 2018aren amaieran abiarazi behar izango duen Hiri-Antolamenduko Plan Orokorren hurrengo berrikustean kontuan hartzeko. Gainera, azpimarratzen du entitatetik egokienak Jabekideen Erkidegoak direla jarduera ekonomikoko edozein mota mugatzeko edo debekatzeko.

## **Lehiaren sustapena**

Lehiaren Euskal Agintaritzza Administrazioako erakunde autonomoa da, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza sailari atxikia, eta erakunde- eta funtzio-autonomia du bere eginkizunak betetzeko. Bere helburu orokorra merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatu, bermatu eta hobetzea da. Bere eginkizunen artean lehiaren sustapeneko eginkizuna prebentiboa dago ere, bere helburua merkatuetan lehia sustatu, hobetu eta erraztea delarik.

Ohikoa da Lehiaren Euskal Agintaritzak sektoreei buruzko txostenak egitea, antzemandako akatsak konpondu edo hobetzeko irtenbideak ematen, eta txostenak ere egiten ditu, bere ekimenez edo herri-administrazioek kontsulta eginda. Bertan lehiari era negatiboan eragin diezaioketen araudiaren alderdi batzuk edo jarduera publiko batzuk aldatzea gomendatzen du.



Txostena:

[http://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/informes/es\\_informes/adjuntos/251\\_INFORME\\_ORDENACION\\_URBANA\\_BILBAO\\_web\\_es.pdf](http://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/informes/es_informes/adjuntos/251_INFORME_ORDENACION_URBANA_BILBAO_web_es.pdf)